

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko martxoaren 1a. IX. urtea. 2.371. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Galesko Cardiff hiriko ordezkariak izan dira Tolosako bi ikastetxetan

Laskorain ikastolan eta Orixe institutuan aztertu dute hizkuntzen ikaskuntza Comenius Regio hitzarmenaren barruan

Tomos Rees irakasle galesak «hizkuntzarekiko maitasuna sustatzerakoan» Euskal Herria eredu bezala duela adierazi du **03**



Cardiffko eta Tolosako Udaleko ordezkariak herenegun, udaletxeko batzar aretoan eginiko harreran. I.G.L.

Bai Euskal Herriarik hitzaldi sorta antolatu du martxorako

Euskal Herriko historiari buruzkoak izango dira; lehenengoa astelehenean izango da Alvaro Arrizabalagaren eskutik **04**

Lander Etxeberria presoari ongi etorria, bihar

19:30etik aurrera izango da ekitaldia Berdura plazan; ondoren sagardotegira joango dira **04**

Kiliklon txokoa zabalduko dute etzi, Leitzako frontoian

Bi eta hamar urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako herri kirolak, tailerrak, jolasak eta ikuskizunak eskainiko ditu, bi egunez **07**

Ibiur urtegia bere edukieraren %68,5lean dago, inoizko mailarik altuena **06**

Biolentzia matxistaren aurrean konpromisoak hartu ditu Tolosako Udalak

Tren geltoki ondoko gunea Emakumeen plaza bezala izendatzea erabaki dute osoko bilkuran **02**

Auresku dantzarien arteko lehia izango da etzi, Ibarako Belabieta kiroldegian

Auresku eta Soinu Zahar txapelketa hartuko du estreinakoz herriak; 35 dantzari ariko dira **02**

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 90 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

Bidali zure argazkia!

Inauterietako Argazki lehiaketa

• **Saria:** Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen **Astobieta nekazaturismoan** bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

• **Argazkiak nora bidali:** thargazkiak@hitza.info
Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!



Guztira, sei mozio eztabaidatu zituzten zinegotziek, pasa den astearteko ohiko osoko bilkuran. I. URKIZU

Emakumeen plaza izendatuko dute herriguneko tren geltoki ondoko gunea

Tolosako Udalak biolentzia matxistaren aurrean hainbat konpromiso hartu ditu ohiko osoko bilkuran

Itzea Urkizu

Herriguneko tren geltokiaren ondoan dagoen gunea Emakumeen plaza izendatuko du Tolosako Udalak, pasa den astearteko ohiko osoko bilkuran, udal gobernuak aurkeztutako mozio alternatiboa onartu ondoren.

Bilgune Feministak eta Berdindibide herri mugimenduek mozioa aurkeztu zuten, martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira. Besteak beste,

2010ean eraildako Elena Cal gogoran izan zuten, eta bera hil zuten Pablo Jorge Simaori diru laguntzarik ez ematea eskatu zuten: «Emakume bat hiltzea merkea dela herritarrei jakinarazi nahi diegu». Gainera, indarkeria sexistaren esparruan erakundeek ere «konpromiso zehatzak» hartu behar dituztela azaldu zuten.

Honen aurrean, udal gobernuak mozio alternatiboa aurkeztu zuten. Politika feministen alde lan egingo dutela diote, eta Bilgune Feministak eta Berdindibide egindako eskari, berriz, honakoa erantzun zioten: «Udala ez da epaitegia, eta ezin ditu giza eskubideak ukatu». Hala ere, Elena Calen auziaren epaia salatu zuten Ibai Iriarte alkateak, eta honako konpromisoak hartuko dituztela

esan zuten: epaitegira idatzia bidaltzea, genero indarkeriaren esparruan lanean jarraitzea, eta beste zenbait jarduerekin batera, herriguneko tren geltoki ondoko gunea Emakumeen plaza izendatzea, indarkeria sexista jasan duten eta jasaten duten emakumeen oroimenez. Bide beretik, Adifekin harremanetan jarriko dira, puntu beltz izendatuta dagoen eremua argizta dezan.

Miren Urkola, parekidetasun zinegotzia, eta Olatz Peon jeltzalea bat etorri ziren gai honen inguruan, eta biak genero biolentzia erroto konpondu beharreko zerbait dela azaldu zuten. «Heziketa eta prebentzioa dira garrantzitsuena», azaldu zuten Urkolak.

Lan erreformaren aurka

Espainiako Gobernuak onartu berri duen lan erreforma ere hizpide izan zen osoko bilkuran, PSE-EEk eta udal gobernuak mozio bana aurkeztu baitzuten. EAJ-PNVk mozio alternatiboa aurkeztu zuen jarraian.

Guztiek gaitzetsi zuten lan erreforma. Bilduk eta Aralarrek erreformak enplegua deusezte eta langileen egoera prekarizatzea ekarriko duela salatu zuten, eta «eredu ezkertiarago bat» nahi dutela aldarrikatu zuten Lore Agirrek. Era berean, lan harremanen euskal esparru baten beharra ere azpimarratu zuten.

Azkenik, euskal sindikatuek datorren martxoaren 29rako deitu duten greba orokorrerako deia luzatu zuten.

Azken hau izan zen PSE-EEk eta EAJ-PNVk onartu ez zuten puntuetako bat; Jose Ignazio



Etxebizitza espekulatzeko erabili izan dute azken urteotan»

INAKI IRAZABALBETIA
Aralarreko zinegotzia

Asensio sozialistak «oinarri berak» defendatzen dituela nabarmendu zuten arren, greba deialdiarekin ez zen bat etorri. EAJ-PNVko Jokin Azkuek, berriz, honakoa azaldu zuten: «Grebarako deialdiarekin ez gaude ados, egoera txarrean gaudelako eta langileek dirua galduko dutelako». Horrela beraz, udal gobernuaren mozioa eta PSE-EErena onartu egin zituzten, eta EAJ-PNVrena ez.

Desjabetzeak salatzen

Inaki Irazabalbeitiak, Aralar alderdiaren izenean, desjabetzeen aurkako mozioa aurkeztu zuten. Finantza entitateei desjabetzeak eteteke eskatu zien, besteak beste, eta zorrak alokairuaren bidez

ordaintzeko modu bat proposatu zuten: «Errazena da hau krisiari egoztea, baina krisiarena bakarrik ez da, etxebizitza espekulatzeko erabili izan baitute azken urteotan, bizi osorako zorretan sartuz».

Legea aldatzea konponbideetako bat litzatekeela uste du Irazabalbeitiak, baina «hori oraingoz ezinezkoa denez», kontratuak aldatzea proposatu zuten.

Mozioaren aurrean PSE-EEko Asensio nahiko ados azaldu zen arren, jeltzaleek babesik ez zutela emango azaldu zuten: «Erantzukizuna finantza erakundeena baino askoz ere zabalagoa da. Aralarrek nahi duen tokira eraman du mozioa, eta herriak herri bezala erantzun behar du». Herritar batek eserlekutik desjabetze kasu zehatz baterako udalaren konpromisoa eskatu eta gero, Aralarren mozioa onartu zuten Bilduren babesekin.

Etxebizitza sozialak

Igarondo eremuan, babes ofizialeko 24 etxebizitza udalaren esku geratu dira. Tolosako Udalak, etxebizitza horiek mugikortasun arazoak dituzten 70 urtetik gorako herritarrentzat bideratzea erabaki du.

Trukean, eta gazteei begira, mugikortasun arazoak dituzten herritar horien jabetzak egokitzeko dirua jarriko du udalak, hauek gazteentzako alokairuan jartzeko. «Modu honetara, 48 etxebizitza eskaintzeko aukera izango dugu», azaldu zuten Ibai Iriartek. Proposamena aho batez onartu zuten udalbatzak.

Atez ateko bilketa hizketagai

Azken asteotan bolo-bolo dabilen atez ateko hondakinen bilketaren gaia mahai gainean jarri zuten Olatz Peon jeltzaleak, galdera eta erreguetan.

Pasa den asteko agerraldian jeltzaleen udal taldeak azaldu zuten bezala, haserre daude: «Zertara eskatu mankomunitateari ikerketa, erabakia hartuta baldin badago? Guretzat ez da errespetuzkoa izan, eta sistema hau inposatu egin nahi duzue». Bide beretik, Tolosako atez ateko zabor bilketarena azalduz Oñatiko alkatea azaldu izana «itsusia» iruditu zaie jeltzaleei: «Minduta sentitzen gara».

Honen aurrean, Iriartek aurreko plenoan esandakoa berresten duela esan zuten: «Bilduk duen nahia atez ateko bilketa da, baina hori gero eskualdera eta Tolosaldera egokitu beharko da, mankomunitate egiten ari den ikerketarekin». Gaur egun sortzen den zabor gehiena organikoa dela dio alkateak, eta «urteetan zehar egoera hobetzen» joan den arren, horri konponbide bat eman beharra azpimarratu zuten: «Gardentasuna izango duzue gure aldetik, eta alarmismorik gabe jokatu mesedez, gaia korapilatua, baina oso interesgarria baita».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosa eta Cardiff arteko elkarlana

Gales hiriburuko zenbait irakasleren bisita jaso du Tolosak, bi udalerrien arteko Comenius Regio hitzarmenaren barruan

Hizkuntzen ikaskuntza aztertu dute Laskorain ikastolan eta Orixe institutuan

Imanol Garcia Landa

Tolosako Udalak eta Cardiffeko Udalak sinatutako Comenius Regio hitzarmena dela eta, bi egunetan izan dira Galesko hiriburuko zenbait irakasle eta hezkuntza zerbitzuko teknikari bat, Tolosan. Lehenengo egunean Ikastolen Etxean eta Lasarteko Berri-zezugunean izan ziren, eta atzo, Laskorain ikastola eta Orixe institutua bisitatu zituzten. Eredu eleanitz batean hizkuntzak irakasteko moduak aztertzea da hiztarmenaren oinarria.

Bi udalen arteko akordioa «garrantzitsua» dela esan du Inaki Irazabalbeitia Hizkuntz Politika eta Hezkuntzako zinegotziak: «Tolosak 18.000 biztanle ditu. Cardiffe 300.000tik gora eta Galesko hiriburua da. Zentzu horretan haiek gurekin elkarlanean aritzea eta hori bilatzea garrantzitsua da. Horrek esan nahi du badugula nolabaiteko erreferentzia hizkuntzen irakaskuntza alorrean Tolosan, herriko ikastetxeetan egiten ari diren lanaren ondorioz».

Irazabalbeitiak ere zehaztu du zer ikasia badagoela: «Bereziki etorri berrien tratamenduen inguruan. Kontuan izan behar da 120 hizkuntza hitz egiten direla Cardiffen. Orain hiru aste bertan egon ginenean, galesez erakusten duten ikastetxe batean izan ginen, nolabait esateko hemen D ereduak izango zena, eta harritu ninduen ikustea hainbat jatorriko haurrak zeudela bertan. Haiek lortu dute, oso ingurune zail batean, Cardiff eremu erdalduna baita, Bilbo bezala, ama hizkuntza ezberdinak dituzten haurrak erakartzea galesez ikasteko».

Galesen hizkuntz politikak aplikatzen beranduago hasi direla esan du zinegotziak: «Gu aurretik goazen heinean, badakite zer egiten ari garen ondo eta zer gaizki. Guk Kataluniara begiratzen dugun bezala, beraiek guri begiratzen digute gai horretan».

Bederatzi irakasle etorri dira Tolosara, talde bat galesez erakusten duten ikastetxe batetik, eta bestetik, hizkuntza nagusia ingeleza den eskola batetik. Gales ez erakusten duten ikastetxeko irakaslea da Tomos Rees. Bilbon bi urtez bizi izan zen Rees eta gaztelania irakaslea da. «Gure institutuaren aldetik, proiektu honen

helburua da ikustea nola erakusten eta sustatzen den hemen euskara. Nik, pertsonalki, Euskal Herria eredu bezala dut hizkuntzarekiko maitasuna sustatzera koan».

Cardiffen erdigunean dute ikastetxea eta bertara joaten dira ikasle gehienek etxean ez dute galesez hitz egiten. «Ikasle askok ez dute eskolatik kanpo galesez hitz egiten eta guretzako arazoa da hori. Guk ikasi nahi duguna da hemen zein estrategia erabiltzen diren gai horien inguruan». Bestalde, hizkuntzen irakaskuntza bultzatzea da beraien asmoetako bat: «Modu horretara eragin positiboa izatea nahi dugu gure herriko hizkuntza ikasi eta erabiltzera koan».

Bisitatu jaso duen inpresioa «oso positiboa» dela esan du Reesek. «Ikastolen Etxean izan gara eta ikusgarria izan da bertan sortu diren materialak ingeleza erakusteko eta euskara sustatzeko. Beti da oso ona beste irakasleekin partekatzea orokorrean hezkuntzari buruzko ikuspegiak eta esperientziak».

«Asko dugu ikasteko»

Emily Daly Cardiffeko Udalaren teknikaria da hezkuntza zerbitzuan, eta bere arduretako bat Cardiffeko eskolen eta atzerrikoen arteko harremanak dira. Berak koordinatzen du Comenius Regio akordioa Galesko hiriburuan. «Euskal Herria bezala, Gales elebiduna da. Asko dugu hemendik ikasteko, hainbat urtetan martxan dagoen hizkuntza proiektutik», esan du Dalyk.

Hemengo esperientziak sortu dion hausnarketa nabarmenena, hizkuntza bat zertarako irakasten den pentsatzea izan da. «Modu akademiko batean izan behar du, edo kalean hitz egiteko, edo gero turismoa egiteko... Oraindik ez nion nire buruari galdera hori egin».

Hizkuntzen ikaskuntzan alde daude Cardiff eta Tolosaren artean. 11 urterekin hasten dira atzerriko hizkuntza ikasten han eta galesa bost urtetatik aurrera. «Galesa bigarren hizkuntza bezala ikasten dutenek, ezin dute oraindik ondo hitz egin hamaika urte ikasi eta gero, hau da, 16 urte dituztenean», esan du Dalyk. «Horretan zeresan handia du jarrerak. Asko dugu egiteko alde



Cardiffetik etorritako irakasleek bisitak egin zituzten, atzo, ikastetxetara. Goiko irudian, Orixe institutuan, frantses ikasgaiaren saio batean. Beheko irudian, Laskorain ikastolako ingeles ikasgaiko saio batean. I.G.L.

horretatik, eta baita ikasteko zuek nola erakusten duzuen hemen euskara».

Joserra Zalakain Orixe institutuko zuzendariordea da. Aurreko legealdian hasi zen Zalakain ikasle mugikortasuna bideratzeko proiektu bat bilatzen eta Comenius Regio proiektuarekin egin zuen topo: «Ez zuen erabat betetzen asmoa, zeren ez dago Europar programa bat urtero-urtero ikasle kopuru bat atzerrira bidaltzea bermatzen duena. Comenius Regionen berezitasuna herrien arteko proiektua dela da, hau da, udalak izan behar du lidergoa». Aurrera begira, eskolen arteko harremanak sendotuz doazen heinean, ikasle batzuk hemendik hara joateko aukera zabaldu

ahalko da, eta Cardiffetik hona etortzeko ere.

Egun egiten ari diren proiektuak hizkuntzen arteko loturak nolakoak diren ikertzeko balioko duela dio Zalakainek. Bestalde, bi herrien artean sortutako harreman horrek «galesek eta euskaldunek zenbat gauza komunean ditugun ikusteko ere balio du».

Kepa Goikoetxea Laskorain ikastolako Bigarren Hezkuntzako zuzendariordea da. «Beraien kezka nagusia da ikasle bat nola garatzen den hiru hizkuntzetan aldi berean. Ikastolan badugu Eleanitz izeneko proiektua: hasieratik euskaraz, lau urterekin ingeleza eta gero gaztelera lan-tzen dute. Guretzako ere interesgarria da, beraz, atzerrian nola

egiten duten jasotzea. Gu bertara joaterakoan ikusi genuen nola egiten zuten hori eta beraiei erakutsi diegu bisita honetan guk nola egiten dugun».

Cardiffera orain gutxi egindako bisitan ikusi dute edukien aldetik ez dagoela alde handirik. «Teknologia aldetik aurreratua go daude, baina bertako hizkuntzaren eta atzerriko hizkuntzen lanketan gu aurreratua go egon gaitzeko», esan du Goikoetxeak. «Beraiegatik ere interesatzen zaigu nola lantzen duten beste herrialde batetik joaten dena integratzeko, eta gainera, hainbeste kultura eta hizkuntzakoak batera izanik. Eskola batean 60 ama hizkuntzako ikasleak izan ditzakete».

Sei lanen artean erabakiko dute zein izango den 2011ko Beterriko Liburua

Lehen bozketan inork ez du %30eko babesa lortu; bigarren txanda botoen %40a lortzen duenak irabaziko du

Erredakzioa

111 Akademia 2011ko Beterriko Liburu izendatuko den obra aukeratzeko jardunbidean murgilduta dago bete-betean. Urtarillaren erdi aldera zabaldu zen lehen bozket txanda, eta bertan 2011ko libururik gogokoena den aldeko botoa bidaltzeko eskatu zitzaizien 181 akademiakideei.

Akademiaren arautegiaren arabera, lehenengo txanda horretan obra batek jasotako botoen %30a bereganatu behar du Beterriko Liburu izendatua izan dadin. Ez zen, ordea, halakorik gertatu, eta beraz, akademiako Batzorde Eragileak lehen saio horretan boto gehien jaso zuten lehenengo sei obrak akademiakideen esku jarri ditu bigarren txanda batean.

Beraz, martxoaren 18ra bitartean zabalik egongo den bigarren bozket txandan sei horietako baten alde egin beharko dute akademiakideek. Bigarren horretan obra batek jasotako botoen %40a bereganatuko balu, akademiako Batzorde Eragileak huraxe izendatuko luke 2011ko Beterriko Liburu bezala; kopuru horretara iritsi den obrarik ez balego, boto gehien jaso zuten lehenengo bi lanak hirugarren txandara pasako lirarteke, eta babes gehien jasotzen duenak irabaziko luke saria.

Saria irabazteko aukera duten sei idazleak eta liburuak ondorengoak dira: Xabier Artolaren *Argi-itzalen neurria*; Anjel Lertxundiren *Etxeok hautsa*; Xabier Mendigurenen *Sakoneta*; Harkaitz Canoren *Twist*; Joan Mari Irigoienen *Ur arreak, ur garbiak* eta Iñigo Aranbarriren *Zamaontzia*.

Alvaro Arrizabalagak Euskal Herriaren historiaurreaz hitz egingo du astelehenean

Bai Euskal Herriarik antolatu dituen lau hitzaldiak entzuteko, aurrez izena eman behar da

Asier Imaz

Euskal Herriko historia ezagutzarako asmoz, eskualdeko Bai Euskal Herriari ekimenak, lau hitzaldi antolatu ditu martxoan. Astelehenero izango dira Tolosako kultur etxean.

Lehen hizlaria Alvaro Arrizabalaga EHUko historia doktorea eta Aranzadiko kidea izango da. Oñatiarrak Euskal Herriaren historiaurrea aztertuko du 19:00etatik 21:00etara, Tolosako kultur etxean.

Hitzaldietara joateko, izena aurrez eman behar da. Horretarako, alde batetik, tolosaldea@baieuskalherriari.org webgunean jarri dute aukera, edo 652 71 58 00 telefono zenbakira deituta. Bestetik, Tolosako Rakun, Villabonako

↓ Hitzaldiak, Tolosako kultur etxean

HILAK 5, ASTELEHENA

■ 19:00. *Historiaurrea Euskal Herriari* hitzaldia emango du Alvaro Agirrezabalagak.

HILAK 12, ASTEARTEA

■ 19:00. *Orreagatik Amaurrera: Nafarroako konkista* hitzaldia emango du Patxi Abasolok.

HILAK 19, ASTELEHENA

■ 19:00. *Matxinadak, Karlista-dak, Gerra zibila eta Trantsizioa* eskainiko du Iñaki Egañak.

HILAK 26, ASTELEHENA

■ 19:00. *Trantsizioa Euskal Herriari* hitzaldia izango da Fito Rodrigezen eskutik.



Arrizabalaga, lehen hizlaria. HITZA

Iru-Aldetan eta Ibarra Subegin jarri dituzte zerrendak. Hitzaldi guztietarako bonoa, 20 eurokoa da. Ikasleentzat eta langabetuentzat, aldiz, 8 eurokoa.

Antolatzaileek, esaldi honetan laburbiltzen duten helburua dute: «Bere historia ezagutzen ez duen herriak ez du etorkizunik herri bezala». Beraz, ezagutzan oinarritutako jakintza bultzatzeko antolatu dituzte martxoan zehar burutuko diren hitzaldi hauek.

Lander Etxeberriri ongietorria egingo diote bihar, 19:30ean

Berdura plazan izango da, eta ondoren sagardotegira joango dira; txartelak Iratzarren erosi daitezke

A. Imaz Amasa-Villabona

Lander Etxeberria preso ohiari ongietorria egingo diote herritarrek bihar, hilaren 2an, Berdura plazan. Ondoren sagardotegira joango dira ospakizunarekin jarraituz. Bertara joateko sarre-

rak Iratzarren aurkitzen dira salgai, Herriratik azaldu dutenez.

Lander Etxeberria otsailaren 16an gelditu zen aske, 10.000 euroko bermea ordaindu ondoren. Guardia Zibilak 2011ko apirilaren atxilotu zuen, ondorioz, espetxean ia urtebete egon da billabonatarra.

Bestalde, Herrira mugimenduen *Erakutsi Amasa-Villabona herrimez kanpoan denari* Argazki Rallya azken fasera iritsi dela ere jakinarazi du. Epaimahaia Amasa-Villabonako presoek osatzen dute, eta hauen epaia hi-

laren 24an plazaratuko da, 12:00etan egingo den sari banaketa ekitaldian. Aurrez, hilaren 20tik 24ra, Aljibean erakusketak jarriko dute. Alde batetik, lehiaketako argazkiak egingo dira, eta bestetik, epaimahai lana egin duten presoek eskulanak. Asteartetik ostiralera, 18:30etik 20:00etara, eta larunbatean, 11:00etatik 12:00etara, ikusi daiteke.

Herrira mugimenduko kideek ongietorri ekitaldira, sagardotegira, erakusketara eta sari banaketa ekitaldira herritar guztiak gonbidatu dituzte.

→ Laburrak

Ipurbeltz bizilagun elkartearen batzarra

ANOETA > Ipurbeltz bizilagun elkarteko kideen batzar orokorra deitu dute hilaren 6an, asteartean. Lehen deialdia 19:00etan izango da, eta bigarrena, 19:30ean. Lau puntuko gai zerrendan, besteak beste, sorrerako estatutuaren finkatutako helburuak gaur duten egoeraren analisia, eta elkarteak Solkorre 9 helbidean jabetzan duen lokalaren erabilera normalizatze proposamenak eta erabakiak hartuko dituzte.

Zirkulazio zerga ordaintzeko deialdia

ZIZURKIL > 2012ko zirkulazio zerga ordaintzeko epea gaur zabalduko dela jakinarazi du udalak. Hilaren 31 arte egongo da zerga ordaintzeko aukera, eta helbideratutako ordain agiriak azken egun horretan pasako dira kontutik. Aipatutako zerga bilketa epearen barruan zor horiek ordaintzen ez badira, prozedura exekutiboaren bitartez eskatuko direla ere azaldu du udalak, premiamentuzko errekarguarekin, berandutza interesekin eta bidezkoa balitz, sor daitezkeen kostuekin.

'Los Descendientes' eta 'Vicky Vikingoa', Gurean

VILLABONA > Gurea aretoan *Los Descendientes* filma ikusteko aukera egongo da larunbatean, igandean eta astelehenean, ohiko ordutegietan. Igandean, 16:30ean, *Vicky Vikingoa*, *Thor-en mailua* filma egongo da.

Mikel Markez eta Erramun Martikorena, hilaren 9an

VILLABONA > Mikel Markez eta Erramun Martikorenak kontzertua eskainiko dute Gurea aretoan, hilaren 9an, 22:30ean. Disko berria aurkeztuko dute, eta sarrera 10 eurokoa izango da, Aurrez, erosteko aukera, Amasa kafetegian egongo da.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera parea** du

Martxoak 4
Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Asefa Estudiantes



harpidedunak **HITZA**



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat egun bakoitzerako **sarrera pare bat** du

Martxoak 3, Larunbata eta
Martxoak 4, Igandea
Leitzako Frontoian
egun guztian zehar



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**

Nerea Ugarte tolosarra txikitatik aritu izan da marrazten eta sormen lanak burutzen. Martxoaren 19ra bitarte, collage teknika erabiliz egindako bere lanak ikusgai izango dira Alegiako Jubilatuen tabernan.

Koloretako paperak uztartzearen artea

Itzea Urkizu

Nerea Ugarte tolosarra, ez du inspirazio iturri berezirik lanerako, eta besterik gabe, koloreen arteko konbinaketa oinarritzat hartzen duela dio, sormen lanekin aurrera jarraitzeko. Bere zenbait lan ikusgai daude datorren martxoaren 19ra bitarte, Alegiako Jubilatuen tabernan.

Collage teknika erabiliaz egindako lanak dira Alegian ikus daitezkeenak, eta lehenago ere, Tolosako Fronton kafetegiaz gain, Donostiako Cafe Kursaal, Urretxuko Buhame Kafan nahiz Donostiako Garraxin ere eraku-

tsi ditu bere azken lanetako batzuk.


Ugartek marrazkiak egiten bizi osoa daramala dio, eta lanbidez ere dekoratzailea da bera. Honenbestez, bere aisialdian hasi zen tolosarra sorkuntza lanak egiten: «Aldizkarietako orriak mozten hasi nintzen, izan ere, ia dena birziklatutako paperarekin egiten dut». Hasieran, papertxoak kartoiaren gainean itsasten zituen, baina urteen poderioz bere lanaren emaitza asko hobetu dela dio: «Orain lanak trinkoagoak dira, egurraren gainean itsasten baitut papera. Nire ustez, izaera gehiago dute, nortasun gehiago».

Tolosa inguruko txokoetan erakusketak antolatzeaz gain, ordea, Nerea Ugartek Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, zenbait jardueretan parte hartuko du artista moduan. Besteak beste, Baionan (Lapurdi) iparraldeko eta hegoaldeko sortzaile askoren artean osatuko dute erakusketa batean parte hartuko du; bihar bertan izango da inaugurazio ekitaldia.

Era berean, Aranburu jauregi-ko *Aurrez Aurre* erakusketan ere bi lan aurkeztuko ditu. Koadroek «denbora asko kentzen» dioten arren, lanean «ilusio eta gogo handiz» ari dela dio Nerea Ugartek, eta jarraitzeko asmoa du.



Artista tolosarrak collage teknika erabiltzen du bere lanetan. I.URKIZU



Hemendik aurrera
euskalherriko plaza.com-en



JAKI saskiak

			
"Sarrerak" 23€	Menua" 17€	"Azken burukoak" 17€	"Gosariak" 10€
Pedro Luis zainzuriak (480 ml-ko potoa) Urdaibai antxoa (210 g-ko potoa) Arbizu pateak (100 g) Mahala urdaiazipikoa (200 g)	Ostargi babarrun zuria (kiloko 2 poto) Delicass ahate konfita (2 izter)	Urbasa Aitona gazta (1/2 kg) Mahala sagar dultzea (200 g) Gartziategi sagardoa (33 cl-ko 2 botila)	Labakoa ogi tostafua (potsa txikia) Pedro Luis mertxika marmelada (275 ml-ko potoa) Alfar olioak (25 cl-ko botila)

Tolosan etxe adosatua salgai:
eguzkitsua, lau gela,
bi bainugela,
komuna,
egongela-jangela
handia, sukaldea,
bi autorentzako
garajea, txokoa,
jardina eta
trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

www.euskalherriko plaza.com

Hamar urte bete berri dira Baliarraingo herriak Ibiur urtegia egitea baimendu zuenetik. Bere ibilbide laburrean, inoiz ez du gaur adina ur pilatu, bere edukieraren %68,51an dago beteta.

Inoizko betetzerik handiena

Eneritz Maiz Baliarrain

Hamar urte bete berri dira, otsailean, Baliarraingo herriak urtegia egiteko baimena eman zuenetik. Hamaika gorabehera pasa ostean, udalak, 2002ko otsaileko udalbatzan onartu zuen baimena ematea. Baimena eman eta obrak iraun zuten bitartean ere, ez zen gorabeherarik faltatu. Obra guztiek bezala, Ibiurkoek ere luze jo zuten. Ibiur urtegiak urte gutxiko bizia du. 2010. urtean jarri zuten martxan, eta ez du inoiz ur kopuru handirik izan. Gaur, inoizko betetzerik handiena du. Bere edukieraren %68,51an dago beteta.

Negu bustia izan da, eta euri eta elur asko egin du. Txindoki mendian oraindik ere elurra ikus daiteke. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak, Josetxo Saizar Gipuzkoako Urak kontsortzioko ordezkaritari, urtegiaren betetzearen zergatiak galdetu dio: «Egindako euriarengatik eta elurraingatik bakarrik ez da izan», azaldu du. Dagoeneko, Urtsubi errekatik ura ekartzeko obrak bukatuak dituzte, eta «osotasunean izan da; denari esker ari da betetzen urtegia», gaineratu du.

2011ko urrian, Ibiur urtegia bere edukieraren %22,65an zegoen beteta, eta egoerak horrela jarraitzen bazuen, hiru hilabeteetarako baino ez zegoen ura. Hilabete gutxiren buruan, egoera erabat aldatu da, eta orain artean, inoiz



Ibiur urtegia, atzo, bere edukieraren %68,51an zegoen beteta. E.MAIZ

↓ Bilakaera

EDUKIERA (m3)	%
4.131.321,07 (2010)	54,54
2.819.127,34 (2011)	37,22
5.190.091,74 (2012)	68,51

ez du hainbeste ur pilatu. Uda pasatzeko adina ur ba ote dagoen galdetzean, Josetxo Saizarrek, honakoa dio: «Joan den urteko egoera hidraulikoa emango bultz, uda pasatzeko adina ur dago momentu honetan». Tolosaldeko herriek, beraz, ur zerbitzua ziurtatua izango dute.

Tolosaldeko 52.105 bizilaguni ematen dio ura Ibiurrek, eta Andoain herria ere sartzen da. 7.575.197 metro kubikoko edukie-



2011ko urriaren 19an zuen itxura: %22,65a zegoen beteta. E.MAIZ

ra du urtegiak, eta gaur egun, urtea hasi besterik ez den arren, 5.190.091,74 m3 betetze maila du. Lehen urtean, hau da, 2010. urtean, 4.131.321,07 betetzea lortu zuen, eta iaizko urtean maila nahi-

ko baxua lortu zuen. Azken asteetan, betetzen doa urtegia, baina ikusi egin beharko da udaberitik aurrera Ibiur urtegiaren ur mailak zein norabide hartzen duen. alegialdea@hitza.info

Hondakinen inguruko hitzaldia izango da gaur, 20:00etan

Usoa Cuende hizlariak emango du hitzaldia, eta zalantzak argituko ditu; erabilera anitzeko gelan izango da

E. Maiz Amezketan

Hondakinen inguruko hitzaldia antolatu dute Amezketako herritarrek. Gaur, hilak 1, 20:00etan erabilera anitzeko gelan izango da. Hizlaria, berriz, Usoa Cuende izango da. Amezketarrek, gaur egun, zaborrak eta hondakinak sortzen ari diren buruhausteei buruz hitz egiteko aukera izango dute. Hala nola, zaborren faktura nola gutxitu dezaketen ikusiko dute, edota gai honek sortzen dituen zalantzak argitzea eta galdetarako egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Jende gutia animatu nahi dute parte hartzera.

→ Laburrak

Ibilgailuen zergak ordaintzeko epea zabalik

IKAZTEGIETA › Ikaztegieta Udalak, 2012ko apirilaren 4a bitarteko lanegunetan, 2012. urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen zergari dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko epea zabaldu duela jakinarazi du. Aipatutako epea amaitzean, premiamentuzko prozedura exekutiboari ekingo zaio. Ordaindu gabeko kuotak eta banketxeak itzulitakoak dagokion errekargua izango dute, eta berandutze interesekin eta kostuekin kobratuko dira.

Hilaren 9ko afarirako izena udaletxean eman behar da

ALBIZTUR › Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, afaria egingo dute albizturarrek Tolosako Jubilatuen zentroan. Hilaren 9an izango da, 21:00etan, eta izena udaletxera deituz eman beharko da hilaren 7a, osteguna, baino lehen. Honako menua izango da: langostinoen entsalada epela eta zainzuri eta ganben hojaldea; legatza labean edo entrekota; eta postreko, pantxina. Kafea eta edariak barne izango dira. 25 euro ordaindu behar dira.

Txintxarri abesbatza Igeldon izango da, etzi

Igeldoko Pedro Deuna elizan 20:00etan hasiko da kontzertua; bukaeran bi abesti elkarrekin abestuko dituzte

Nerea Pikabea Alegia

Alegiako Txintxarri abesbatzak emanaldia eskainiko du, larunbatean, Igeldoko Pedro Deunaren elizan, 20:00etan. Igeldoko Lezkarri abesbatzarekin duen hartuemanetik sortu da kontzertua. Igeldorrek joan den urteko maiatzean abestu zuten, Alegian.

Hamar bat kantu abestuko ditu Txintxarri abesbatzak Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean. Mariaje Rekondo herritarrek pianoarekin lagunduko die.



Txintxarri abesbatzaren kontzertua 20:00etan hasiko da. E.ARRAYET

XVI. Mendeko kantu batekin hasiko dira. Enriquez de Valdeirabano musikagile espainiarrik idatzitako *Cantio* abestia da, eta moldaketa David Azurza tolosarrarena da. XVI. Mendeko erritmo handiko beste doinu bat ere abestuko dute, *Matona mia cara*, eta baita, Luigi Molino Italiako

musikagile garaikidearen *O sacrum convivium* ere.

Euskarazko kantu zaharrak eta berriak entzuteko parada izango da alegiarren emanaldian. Hala, Pier Paul Berzaitz kantari zuberotarraren *Baratze bat* abesti ezaguna abestuko dute, Xefe Balerdi bakarleri lanetan jarrita.

Mikel Urdangarinen *Usaiak* ere; Elena Alustiza abesbatzako sopranoak eta herriko txistulari ere badenak egingo du bakarlariarena.

Segidan, David Azurza tolosarrak eta Xabier Sarasola beasaindarrak duela bi urte Iparraldeko sorkuntza koralerako konposatutako bi obra abestuko dituzte, *Areson aleka* eta *Urrikarria*.

Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenarako Xabier Sarasolak hitzak dituen *Pausoz pauso* ere abestuko dute. Gospel doinu bat eta Aruba irlako herri abesti bat kantatuko dute, koreografia eta guzti. Amaieran, Igeldoko eta Alegiako abesbatzek elkarrekin abestuko dute, Pablo Sorozabalen *Maitte* eta *Jeiki, jeiki* euskal herri doinuak.

Berrobiko liburutegian marrazketa tailerra hasiko da hilaren 13an

Astearteetan emango dute, eta 10 orduko iraupena izango du; martxoaren 8a da izena emateko azken eguna

I. Terradillos Berrobi

Marrazketa tailerra antolatuta dute Berrobiko udal liburutegian. Martxoaren 13an hasiko da, eta astearteetan emango dute, 17:00etatik 18:00etara gaztetxoentzat eta 18:00etatik 19:00etara helduentzat. Oscar Tena da irakaslea, 10 orduko iraupena du, eta 15 euro ordaindu behar da. Udaletik adierazi dutenez, 7 urtetik 99 urte bitarteko adin tarteari zuzendua dago. Martxoaren 8a da izena emateko azken eguna, eta liburutegian astearte eta ostegunetan edo liburutegia@hotmail.com helbidean egin ahalko da.

Ibarrako sokatira taldea omenduko du Udalak, bihar arratsaldean

I. Terradillos Ibarra

Eskozian jokatu den munduko sokatira txapelketan, Ibarrak urrezko domina irabazi du, eta horregatik, Ibarrako Udalak sokatira taldea omenduko du. Bihar izango da ekitaldia, batzar aretoan, 19:30ean hasita. «Ikargaria izan da lortu dutena eta horren errekonozimendua egingo dugu, ekitaldi xume batekin», adierazi dute udaletik, herritar guztiak gonbidatuz.

Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketa hartuko du estreinakoz Ibarrak, etzi

12 eta 15 urte bitarteko 35 neska-mutilek hartuko dute parte; Belabieta kiroldegian izango da, 16:30ean

Iñigo Terradillos Ibarra

Euskal Herriko dantzarik tradizional eta ezagunena gure gazteek nola dantzatzeko duten ikusteko aukera polita izango da etzi, Ibarran. Izan ere, antzina mutil-dantza edo soka-dantza izenarekin ezaguna zen dantza eskainiko dute Ibarrako Lehenengo Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketan parte hartuko duten neska-mutilek.

Alurr dantza taldeak antolatuta, 16:30ean hasiko da ekimena Ibarrako Belabieta kiroldegian, eta sarrera doan izango da. B saillean lehiatuko dira 12 eta 15 urte bitarteko 35 neska-mutil —21 neska eta 14 mutil— eta horietatik 7



Aimar Odriozola Ibartarra eta Andrea Arregi elgoibartarra, iragan asteburuan Beasainen izandako aurresku txapelketako irabazleak. HITZA

izango dira ibartarrak, 6 neska eta mutil bat. Azken honen, Aimar Odriozolaren, maila nabarmenezkoa da, Beasainen eta Legazpin izandako txapelketetan lehen postua lortu baitu.

Ibarrako txapelketa, Euskal Dantzarien Biltzarrak bultzatzen duen ligaxkaren barruan jokatzen diren kanporaketa saioetako bat da. Aurresku txapelketa mutilei zuzenduta dago, eta soinu zaharrekoa da, neskei. Ligaxka urrian hasi eta maiatzera bitartean jokatzen da, eta kanporaketa horietan punturik gehien lortzen dituzten dantzariak, maiatzean jokatuko dute finala.

Ibarrako txapelketan, aurresku txapelketako parte hartzaileek agurra eta desafioa dantzatu dituzte, eta soinu zaharrekoei hondarribi eta upelategi dantza.

«Tradizioak berreskuratzeko»

Euskal Dantzarien Biltzarrak proposatu zion Alurr dantza taldeari Ibarran txapelketa egitea, eta hauek «zalantzarik gabe» onartu zuten. «Gure tradizioak berreskuratu, eta gazteen aurrean aurkezteko ekimen polita iruditzen zaigu», azaldu du Eli Nosenllas dantza taldeko arduradunak. Era berean, horrelako ekimen bat antolatzeko lan handia egin behar dela, eta izan duten babesa eskertu du: «Kutxa eta Euskadiko Kutxa, Ibarrako Udala, Ibarrako merkatari Elkarteak, Ibarlur, Hauspoa, Xepla eta Kirol elkarteak eta Zubiaurre eta Txumitza taberneak emandako laguntza, eta musikariak bezala borondatez lanean aritu eta arituko diren guztiak eskertu behar ditugu».

Etengabe jolas egiteko aukera, Kiliklon txokoan, asteburuan

Puzgarriak, tailerrak, euskaraokea, jolasak, herri kirolak, musika... izango dira Leitzako frontoian, egun osoan

I. Terradillos Leitza

Etxeko txikiak gozamenarako, Kiliklon txokoa izango da asteburuan, etzi eta igandean, Leitzako pilotalekuan. Puzgarriak, jolasak, musika, ikuskizunak, tailerrak... denetarik izango da, gurasoek eta gaztetxoek aspertzeko betarik izan ez dezaten.



Tolosan, Gabonetan, txingekin. A.I.

Tolosako Sointek ekoizpen etxeak antolaturiko ekimena da Kiliklon. Tolosan Gabonetan izandako «arrakasta handiak» bultzatuta, herri gehiagotara zabaltzea nahi dute. Hala, Leitzara eramango dute asteburu honetan, eta bertan Topaketa Feministak egingo direnez, haurrekin doazentzat aukera polita dela haur parkea diote antolatzaileek.

2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago, 2 eta 4 urte bitartekoentzat haurtzaindegi gune berezia egongo delarik. Bai batean zein bestean, begiraleak egongo dira haurren zainketaz eta segurtasunaz arduratuz.

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta egun osoarako sarreragatik 10 euro ordaindu beharko da, eta goizerako edota arratsalderako sarreragatik 6 euro. Aipatzekoa da pilotalekuaren freskotasuna ekiditeko berogailu sistema izango duela Kiliklon txokoan.

Jolas eta ekintza ugari

Lasto altzatzea, txingak, harri jasozea, trontza, sokatira edota lokotx biltzea bezalako herri kirolak egin ahalko dira, eta minigolfa edo boloak bezalakoekin jolastu. Tailerrei dagokienez, margolanak eta eskulanak izango dira nahi duen ororen eskura. Horrez gain, puzgarriak egongo dira, euskaraokea, musika, ikuskizunak —18:00etan, bi egunetan—, txokolata igandean, eta kafetegi zerbitzua.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOXE MARTIN BENGOLAIN ETXEBERRIA

Hiri erakutsitako indarra eta kimerena eskertzen diagu. oso atsegina izan diek hiekin bizitzea.

HIRE KLIADRILA

EDAZABAL, 2012ko martxoaren 1a

Oharra: Euzko agiri, gaur OSTEGUNA, asteazkero ZAZPIETAN, Ibaiztegi TRICAMERANA, partezko sarraga da.



JOXE MARTIN BENGOLAIN ETXEBERRIA

Adiskide bat bazen... Adio Joxe Martin.

Izigo Realaren pelafko lagunak

EDAZABAL, 2012ko martxoaren 1a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Bilkuran egungo egoera politikoa eta 2012ko ildo politikoa izango dituzte hizpide.
- **Tolosa.** Orbelako Gauak zikloaren barruan gaur, Arozenatarren Ttun Ttuna taldea entzun ahal izango da 22:30ean.
- **Tolosa.** Lizardi elkarteko kideek Pello Odriozola kidearen askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, Trianguloa plazan.
- **Tolosa.** VI. Ekozinemaldiaren barruan gaur, 19:30ean kultur etxean, *Palmed Off*, *Amanece Dignidad* eta *Abuela Grillo* -nak ikusi ahal izango dira.
- **Berastegi.** Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta martxoaren 9an afaria egingo dute Basurde elkartean. Martxoak 4 da izena emateko azken eguna, eta 943 68 31 51 (kontxi) edo 943 68 33 38 (Maria Jesus) telefonotara deitu behar da.
- **Berrobi.** Martxoaren 9an ospatuko dute beren eguna Berrobiko emakumeek. Solastokin egingo dute afaria eta txartelak 25 eurotan daude salgai.
- **Ikaztegieta.** Ikaztegieta emakumeek martxoaren 9an ospatuko dute Emakume Langileen Nazioarteko Eguna. Afaria egingo dute herriko ostatuan, eta txartelak martxoak 8, osteguna, baino lehen erosi behar dira 15 eurotan.
- **Tolosa.** Kirikiño-Txantxangorriren 25. urteurrena dela eta, apirilaren 21ean, afari erraldoia antolatuta nahi dute. Bertara nahi duen guztia dago gonbidatuta. Edozein galdera egiteko email bat bidali behar da izen-abizenak zehaztuz helbide honetara: kirikinoaisialdia@gmail.com.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



SARI BIKAINA IRABAZTEKO AUKERA

Andoni Arruabarrenak Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen Astobieta nekazaturismoan bi laguntzeko gau bateko egonaldia irabazi zake. Inauterietako Argazki Lehiaketa parte hartzeko honako irudia bidali du, eta martxoaren 16an jakingo du irabazle den ala ez.

Gogoratu irudiak thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar dira. Parte hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali dezake, eta emallean izen-abizenekin batera telefono zenbaki bat jarri behar da. Argazki guztiak tolosaldea.hitza.info-n daude ikusgai. A.A.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info


●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.



Stock Azoka
Kursaalean
Martxoaren 2tik 5era

Bertan izango gara

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30



LENTZERIA